

	Politika	Nazioartea	Gizartea	Ekonomia	Euskara	Ingurumena	Kultura	
EAJ	Langabezia	Guantanamo	GAL	Okupazioa	LGBT mugimendua	Energia krisia	Etzegabetzeak	Generoa

[PDF BERTSIOA](#)[INPRIMATU](#)[IRUZKINAK](#)

◂ LIBURUAK ▸

Demokrazia berdin Justizia?

Saioa Ruiz
Gonzalez

2244. alea
2010-09-19

[Tweet](#) 0[Gomendatu](#) 0[👍](#) 0[👎](#) 0

ARIEL DORFMAN ::HERIOA ETA DONTZEILA

TXALAPARTA

ORRIALDEAK :: 100

PREZIOA :: 14€

Ariel Dorfman (Buenos Aires, 1942) kultura herrikoari buruz idatzitako saiakeren zerranda luzeagatik nabarmendu da. Baina pentsatzekoa da, eskaini zaion idazle kategoria ez dela soilik saiakeraren esparrura mugatzen, bere bibliografiari erreparatzen badiogu poesia, eleberririk edota antzezlanak ere topatzen baititugu. Bere lanek, gertaera historikoen gordailu, idazle eta aktibista bilakatzen dute, giza eskubideen aldarrikatzaile. Txiletar nazionalitatea lortuta, Salvador Allenderen gobernuaren aldeko ekintzetan parte hartu zuen, baina Pinocheten estatu-kolpeaz geroztik, Frantziara alde egin behar izan zuen lehenik eta AEBetara ondoren.

Fito Rodriguezek itzuli, eta Txalapartak argitaratu duen *Herioa eta dontzeila* (*La muerte y la doncella*, 1992) antzezlan, Txileko demokraziarako trantsizio garaian idatzi zuen. Lan honek, diktadurak irauin bitartean, faxistek hil eta torturatu zituzten milaka pertsonaren kasuak berrikusteko garaia markatzen du. Bizirik dirautenen lekukotasunak lagun, erailketetan parte hartu zutenen izenak argitaratzeko, eta epaituak izateko, prozesua abian jarri duen demokrazia sistema baten hastapenetan kokatzen gaitu. Ulertzekoa da, diktadura batetik atera berri den herrialde batean, hura aurrera eraman zutenekiko gorrotoa lege bilakatu izana. Eta gizaki garen heinean, eskubide berdintasuna badugun arren, nola esan torturaren biktima izan den bati, bere torturazailleak defentsarako eskubidea daukala? Ba al da, kasu horretan, eskubide berdintasunaren printzipioa aplikatzerik? Justizia eta demokrazia bat al datoz?

Pertsonaien arteko gatazka manikeistak, gertaera historiko bat kontatzeaz gainera, haren gaineko ikuspegi, sentimendu eta bizipen desberdinak islatzeko balio du. Paulina, emakume torturatua, gorrotoak eta inpotentziak jota, bere ustezko torturazailleetako bat bahitu du bere kabuz epaitzeko asmoz. Hala ere, hura salatzeak, ez dauka haren ahotsa, usaina eta azalaren frogaz gain beste ezer. Gerardo, bere senarra, sistema legelearen bozeramaile, ez dago ados Paulinak hartu dituen neurriekin, eta frogen objektibotasun falta leporatuko dio.

Gertatu zena epaitzeko prozesu horretan, egia lausoturik ageri da. Pertsonaiak, antzinate klasikotik datozkigun kontzeptu antagonikoen talka mahai gaineratzeko balio duten sinbolo bihurtu dira; lege naturala eta lege juridikoa, pasioen mundua eta mundu arrazionala. Zein da zuzenagoa? Greziarrek, jada, antzerkiaren bitartez, demokrazia sistema eta horren ondorioen inguruko hausnarketan aritu ziren. Dorfmanen lanak, oraindik ere, justizia demokratikoaz galdezka jarraitu behar dugula salatzen du.

Kazetaritza egiten dugu

Gomendatu 0



PDF BERTSIOA INPRIMATU

0 comments



Best Community

Share

No one has commented yet.


Comment feed Subscribe via email



Argia


Atsegin

5.193 pertsonak Argia atsegin dute.



Jaso egunero email bakarrear eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, astekaria. **Dohainik.**

Ale berean...



Ozono zuloa

Antartikako zeruen osatze bitxia



Juan Garmendia Larrañaga

"Gustatzen zaidana egin dut, nahi izan dudanean"



Mari Boine

"Samieraz abestea erabaki politikoa da"



José Luis Guerin

"Gidoiaren babesa bilatzen duen zinema zaharkitua iruditzen zait"



Thomas Pierre

"Zientzia ez dago euskalduntasunaren alde"



Colorado Springsen udalak ezin ditu kale guztiak argitu

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

HARPIDETU ORAIN

ALTA EMAN

EGUNEKOA POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA KULTURA EUSKARA EKONOMIA ASTEKARIA MULTIMEDIA

Nor gara | Kontaktua | Mapa | Lege oharra | RSS jartoa | Iragarri | Harpidetu | Tel: 943 371 545

1998 - 2013 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.

